2.ⁿ URTEA

# IBAIZABAL

62ⁿ GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Epailla-ren 8ⁿ | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1903-ko Epailla-ren 8ⁿ

**IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.**
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.° derecha.

## BETI EUSKALDUN

Poz aundiakin irakurri zan emen azkeneko gueian gure erri maiteari donkitutako berekinde edo artikulua.

Uste guenduen izango zirala gure errian baiña gueiago *Ibaizabal* saltzen ziran tokiak; baiña ikusten danez, gu gaude eskalleran gaiñ gaiñeko maillan. ¡Ezta guichi alajaiñetan!

¿Zeiñek sinistu bear zuen emen orrenbeste euskerazko paper saltzen zirala ikusirik kale guziak gallegoz, naparrez, andaluzez, frantzezez, eta itz batean bukatzeko, euskalerritik kanpoko jendez beteak, emengo fabriketan eta burnibidetan lana eguitera etorriak? Iñork ere ez, baiña eguia da.

Gure erri maitean, bertako semeak itzeguiten degu, ondo edo gaizki, aldan bezela, erderaz eta frantzezez, bear danean, baiña ala fabriketan nola kalietan eta eche gueienetan ezta gure izkuntza paregabea besterik entzuten.

Beti izandu da erri au euskalzalea, ala da gaur ere eta ala izango da aurrera.

Nere iritzian *Ibaizabal-ek*, chikia izan arren, mesede aundia eguin du aguertu dan leku guzietan. Emen beintzat sekulan albistaririk irakurtzen etzuten jendeak erosten dute pozik asteero.

Jai goizetan baserritar askok artzen dute eta arrapazka ibiltzen dira bertso politik badakar.

¡Makiña bat aldiz egoten naiz baserri inguruetan ardi eta bei-zai mendi egaletan arkitzen diran neskacha edo mutill gazteak *Ibaizabel-en* bersoak kantari daudenian pozez entzuten! Badaki bada artezkari jaunak jende gazteak zer irakurri nai duen.

Ezagutzen det denan naia edo desioa ezin litekela eguin, bada alde batetik Bizkaiko jendeak ez du aditzen ondo emengo izkera eta nai du albiste gueienak azaldu ditezela bizkaitarrez, eta bestetik berriz guipuzkoatarrak ez degu ondo aditzen Bizkaiko euskera, eta nai degu *Ibaizabal* gueiena betetzea emengo euskaraz izkribatutako gauzakin.

*Ibaizabal* chikia da, eta ez lezake beti danen gustoa edo gogoa kumplitu.

Alderdi bat ikusten det ortarako. Eguin dezatela Euskalerri guztian Errenterian eguiten dana, au da, guei asko saldu, eta modu orretan albistari chikia aundituko da eta orduan paperian izango dira oraiñ baiño kontu gueiago bi euskeretan, eta esango degu Euskelerrian badala berak merezi duan bezelako albistari aundi eta ederra.

Eguietan, Euskalerria maite duenantzat ezta sakrificio aundia. Astean sos bat, au da, baso bat sagardo astean guchiago edan edo zigarro erdi bat guchiago egunean erre. Eta ori ¿ez degu eguingo?.

Uste baiña luzeagoa irten da artikulu au, eta bukatzeko esan bear det milla esker emoten dizkagula biotzetik *Ibaizabal-i* gure erri maitea orrenbeste goitalchatu duelako eta Errenteria izandu dala, dala eta izan nai duela beti euskaldun.

ENRIKE EGIZECHEA

## WECKER-EGUZKIARI

¿Zer balio du persona batek
Baldin ezpadu bistarik?
¿Zer da guizona? ¿Zer da bizitza
Bizitzekotan ichurik?
Naiera denak baiño naiago
Nuke Wecker jauna nik,
Nere beguia len bezelassen
Idukitzea arguirik.
Gau-caiño ez dit illuntasunak
Neroni eman beldurrik,
Begui arguiak beti iduki
Ditut, Zeruak emanik,
Illko nitzake baiña ikusi
Ezinda jarriko banitz,
Lur, ur, belarrak, andre, umeak,
Lore, eguzki ta izarrik,
Zentzu guztiak ditugu onak,
Baiño lenbizi beguiak,
Zerorregana argatik datoz
Wecker beguiz eriak;
Chit urrutikan aberats aundi
Nola beartsu chikiak,
Zeren gueiena balio duen
Guizonarentzat arguiak.
Ezin zaitzaket ospatu gabe
Wecker jauna gaur utzi,
Kantatu bear det nai ta nai ez
Eguin detana, ikusi;
Donostiako andre urteak
Dituenari ez guchi,
Beingo batean diozulako
Zeorrek ikus erazi.
Laroguei eta zortzi urteko
Andre beguiraungarria,
Kataratakin atzo ichu ta
Orain zerana arguia;
Izaguirretar Doña Franziska,
Orren zorion aundia,
¿Nork zuri eman jaio ezpalitz
Wecker arrigarria?
Egarri danak ura nai luke
Goseak berriz oguia,
Errenak ibilpide ona ta
Gorrak belarri zolia;
Guizon bakoitzak osatutzea
Nai du beraren premia,
Wecker jauna nik gura nuke
Senda didazun beguia.
Denak diote etzaizkatela
Zuganatzea damutu,
Zeren illunak echeetara
Argui dituzun biraldu;
Eta ni ere orobat, berdin,
Arren biraldu nazazu,
Zure izena ill arteraiño
Kantuz dezadan alchatu.
Bertsoakin nik utsik zaitzaket
¡O! umant ona goratu,
Aberats izan nedin mundura
Jaunak enindun botatu;
Zuri eskerrak eman nairikan
Neurtitzok ditut moldatu,
Diñ ezpadira arren zuk jauna
Eguin zadazu barkatu.
Zu bezelako guizonik iñoiz
Illtzerik nik nai enuke,
Dakizulako pozetan jartzen,
Bizi ziranak len triste;
Berdin jarriko nazula ere
Biotzetikan det uste,
Zeren dituzun mundu onetan
Jarri millaka ainbeste.
Illko baziña ere zuk utzi
Itzatzu ondorengoak,
Guchi atera gatikan ere
Zu bezelako maisuak;
Beti izango diradelako
Beguiz eri ta gaissuak,
Eta ikasle zureak izan
Ditezen oiñ ordekuak.
Oroimengarri izango zera
Beti askoren goguan,
Jantzi zaitzala kondairak lorez
Galan galanki buruan;
Illuna arguitzen zu zeralako
Eguzki ederren munduan,
Ill eta guero izango zera
Izar ezillkor Zeruan.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Baionan 1902-ko Abuztuan.

## URIRIK URI

Lengo egun baten guengozan esaten leku onetanche zein bazterturik dagoan *Euskerea* Bilbon, batez be Elizetan. Aitatu guenduan Bilbon euskereari eguiten jakona, etedan bertako arimaizaiñak *euskeraz nai* eztabelako ezer irakatsi; edo *eziñeza*-gaitik, ala *otueza*-gaitik. *Naieza*-gaitik ezin izan leikela esan guenduan, zergaitik arimazain benetakoak nai bear daben izan arimazalea, nai ta euskera baiño eztakiana izan au, edo erdera gaizto gueien gueien bere dakiana.

¿*Eziñezak* eraguiten etedeutse Bilboko abade-nagosi edo parrokoari euskeldun eliztarrakaz eguiten dagozana? Ikusi daigun: *Eziñeza* bada, ainbat eta ainbat euskaldun ikasbiderik euskeraz euren arimazain nagusien aotik entzun baga egotea Bilbon; izan leike; 1.° *parrokoak* euskerarik ez jakiñagaitik; 2.ⁿ Euskera jakin arren, buruauste ta zereguin askok eragozten deutseelako euskerazko berbaldiak eguitea; 3.ⁿ euskeraz jakin, eta astia eukiarren be *parrokoak*, eliztar euskaldunak mukerrak direalako elizkizun ta berbaldietara etorten; 4.ⁿ euskerazko berbaldichu orrek Obispo jaunak chartzat artu ezetedaizan bildurra; eta askenez, abade lagunak eta jenteak be arpegui astun eztaian, euskerazko berbaikuntzak, erderadun askoago dagoan elizate edo *parrokian.*

BARRICHUK, beren erechian, achakui laburtzat daukaz aitatu diran *errazoe* guztiak. Ara zegaitik: 1.° *Parrokoak* ezpadakie euskeraz, daukeezalako abade-lagun (coadjutore) euskera dakienak; eta *nunbait* aguindurik dagoalako *coadjutoreak eguin daiela* berbaldi edo sermoia edo irakastaldia *parrokoak ezin dabenean.* Barriz, Bilboko arimazain nagusiak eztot uste (danak beintzat) euskera eztakienak direanik. 2.° ¿eteda *arazuz beterik bizi direalako*, euskerazko irakaskuntzarik eza? Arazuak asko direanean, bear dana da, lenengoak betetea lenengo eta besteak gueroago. Eta onetara ta guzti ezin bete badira dan danak, bete beintzat norezekoenak, ¿Eta Bilboko *parrokoen* arazuen artean, *lenengoetarikoa ezal-*

*da* eliztarrari irakastea ikasbide zerutarra? Eta barriz, aiñ lenen edo aurrerengo diran beste arazu edo zereguiñez beterik badagoz ¿nozko eta norako eta norentzat dira abadelagun edo *coadjutoriak?* Ezta ba aguiri euren *eziñezaren* sustarrik bere. 3.ª *errazoia* barriz, ezta autura ekarteko be. Bestela ¿nok daki zenbatek gureko leukean etorri, iñok ezpadeutsa itandu ez adierazo euskerazko berbaldi konturik? Artzainak ardiari chistu eta deiak eguin bear leuzkioz bedar ona jatera etorri daitean. ¿Dei eguin jake eliza bakochean?... Barriz, euskoldunak eurenez elizaleak direana ezta zetan itandu. Errazoe au barriz erdaldunakaz be badoia aintzat artzeko balitz: zegaitik *mukerrak* ezeze *gorrak* be aurkitu leikezan erdaldunen artean.

Baiña ez neiten izan *barritzueguia.* Neuk dana esan barik bere, ulertuko dau nai eta bear dabenak, euskerazko berbaldirik eguin bear litzaken ala ez. Eta iñoz eguitea ondo bada ¿kaltegarria izango etelitzake *garizumako aldi* onetanche? Ezetzean dago.

BARRITZU

(jarraituko da)

# CHEPECHA

## Irakaslea

Azkotan ezan izandu dute
guizon ikastun arguiak,
nola piztiak izan litezken
gure irakaslariak;
erlea da bat aipatzen dana,
¡o zer lan arrigarriak
jartzen dituzten gure aurrean
onek eta chingurriak!
chepechak berriz irakasten du
ainbeste nola aek biak.

Euskal lurreko chorietan dan
chikichoena da bera;
gaztain-kolore bakarrekoa,
nai bada ezta ederra;
begui arguiak, buru sanpala,
moko tentea aurrera;
korputza mocha, anka laburrak,
saltokako ibillera;
salapaztako egalaria
eta kantari erguela.

Choch batek aisa jasoko luke,
nola karga guchi duan,
baiñan gustatzen zaio jartzea
adar sendosseaguan;
amilduarren ez leike galdu,
dakielako eguan;
baiñan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiuan...
iru lau aldiz sanpatutzen du,
seguru ote daguan.

Udaberrian lendabiziko
kabia chepecharena
azaldutzen da, ta ezaguna,
goroldiozkoa dena;
arbol guerrian, untza tartean,
du lekurik maitiena,
ta guizon askok ikusitzean
irichpidean dagüena,
ezan oi dute:—¡Zer konpiantza chori char onek duena.

Ta edozeiñek esan lezake berari beguiratzean,
arretarikan ez dadukala eguin leioken gaitzean;
ez-idurian ark kabiari beste zuloa atzean eguiten dio, andik joateko aurrekoa lapatzean,
*irakatsiaz, pentza zagula nola atera sartzean.*

X.

# EUSKALDUN ERDALZALEA

## Tupiak pertzari ipur-beltz

I

—Indarnerio (1) ¿ikusi dituzu bi guizon oiek?

—Bai ta ¿zer?

—Bata papera baiño miagoa, eta bestea berriz zaaguia baiño lodia goa.

—Eta ¿zer zeukeagu orrekin?

—¿Eztit ba esan gure *ermanu* onek?...

—¡*Ermanna... ermanua*! Orisse dek erderaz eguin bearra Euskalerrian.

—Badakizu ba, nola zuk erderaz ere ondo dakizun, guk ere zerbait ikasi naian....,

—Ba erderaz ondo ez eguitekotan, eguin euskeraz, eta San Seakabo.

—¡Ai ai! ¿ori aldegu oraingo Santu berria? Beraz ori ere euskalduna degu.

—Tira, tira; guazen asi degun saillera. ¿Zer esan dik ire, ez *ermanuak*, baizik anaiak?

—Ara zer esan duen: bi guizon aiek bat dirala.

—¿Biek bat dirala?

—Bai... baiño izenez.

—Irekin ta ire anaiarekin bai eguin ditekela bat, lau ankakoa, izenez ta izanez.

—Baiña beguira; eguin dezagun itz promalidadian. Guizon aietako batek omen du izena Komersiñdo, eta besteak berriz Komersendo. ¿Izen oiek, biak bat ala bi dira?

—Bi; eta ez ik uste bezin alkarren antzekoak ere. Komersiñdo dek Janeziñ -du; eta Komersendo, Jan-sendo.

—Oiek biak bataiatu zituan apaiza igarri andikoa zan nunbait.

—¿Zergatik?

—¿Zergatik?... Zergatik ipiñi zizkien izen egokiak; batari Jan-ezindu, eta orra non dagoan papera baiño miagoa; besteari Jan-sendo, eta orra non dagoan Sanson baiño sendoago.

—Baita, eguia esateko, asko dek beguiratzea biei ezagutzeko zein dan Komersiñdo (Jan-ezindu) eta zein Komersendo (Jan-sendo). Baiña etzuan ba erdaldun aundi aundia ere.

—Ez aleguia; Euskalerriko semea izango zan ta.

—Baiña etzuan ba euskaldun jator jatorra ere, izen oiek ipintzeko. Nik or ikusten dizkiat erdera ta euskera naste.

(1) Indalecio

—¿Nola ipiñi bear zizkien ba?

—Erdera garbian *Komernofode* batari, eta besteari *Komerpuerte.*

—¿Eta euskera garbian?

—Janezindu, eta Jansendo.

—¡Ori esan... ori esan! Ara gu tonto-samarrak ere baguera, baiña orain len baiño zerchoerebait gueiago dakigu.

—Bai; baiña ¿nori esker?

—Ori esan bearrik eztago. Dakianari, beti oi dario, arto beroari usaia bezela.

II

—*¡Cómo así! ¿Don Indalecio á pié? ¿No habia coche?*

—*Sí:.. pedo... á mi más me se agusta así pedeando pedeando...*

. . . . . .

—Orisse dek chalo jotzea gure Indarneziori. *Ermano* ¿zergatik oteda?

—Erderakadaren bat botako zian ta.

—*¿Pedeando... pedeando...* esan duelako ote dek?

—Baita *pedean* ondo egon ere guizon orisse. Balekitek nik bezela jaun oiek orren berri, esango leioketek: *pega... ondo... pegaondo.*

—Bai, amaikari pegatu ziguk. Orain eguingo balu *pagaondo pagaondo.*

III

—Baiño Indarnezio, ¿zergatik jo dizute ainbeste chalo.

—Uste zian Don Prantziskok nik ezingo niola erantzun erderaz aren galdeerari, baiña nik erantzun, ta ederki ala ere.

—¿Zer galdetu dizu?

—Ia etzegoan kocherik oiñez etortzeko.

—¿Eta zer erantzun diozu?

—Neri gueiago gustatzen zatala oiñez ibiltzea.

—¿Ori al zan *pedeando?*

—Ori dek. Don Borliok (2) agudo atera dizkit papera ta lapitza, ta eskribitu ere bai paperian itz ori, menturaz oraindiño aditu ere eztana.

—¿Eta nondik atera dezu zuk itz ori?

—Latiñetik, ara nola. *Pedes*-ek esan nai dik *oiñak*, eta *pedeando*-k *oiñez. Oiñazando* esateko ere egon nauk, baiña «ez—esan diat—emen ikusiko gaituk zenbateraiño gueran», eta orain irentzi dezala.

—Beguira; Don Prantzisko latiñez ikasia izan bear du ba.

—Bai liburutik; baiño ez buruz. Liburutik edozeiñek zekik, baiño guizonak burua bear dik. Don Prantzisko ere oraindik guizonchoa dek.

—Bai aleguia zure ondoan; eun ta ogueta amar kilo bazera ta, Don Prantzisko berriz berrogueta emezortzi...

—Bai, Don Prantziskocho dek ura oraindik ere, eta guizon chikiak eta ume andiak, an aren baten, berdintsu dituk.

(2) Don Braulio.

IV

—¿Bakarrik abill Pachi?

—Bai Indarnezio. Gure anai ori zuzaz oso minberatua dago.

—¿Zer arraie? ¿Zertan uts eguin otedegu?

—Uts edo bete, lengo egunean zuk esan zenduena etzitzaion ondo iruditu.

—¿Nik esan nuena?

—Bai zuk esan zenduena; gu biokin eguin zitekeala bat, lau ankakoa, izenez ta izanez.

—¡Ara bertan Bilbo! Nor eta Anton ain minberea...

—Bai guizona bai; ta esan digu anai biokin lau ankako bat eguitea gaitzcho dala, baiño zurekin eguin bearrik eztagoela; eguiña zaudela,

—¿Ark zer zekik?

—Ara; Machin ijitoa bart astakumearen billa zebillela iruditu omen zitzaion trabenako atean zegoala bere astakumea; joan omen zan ta... ¡o!... ¡o!... Indarnezio... lau oiñetan.

—Aizak, issillik ezpaago...

—*Oiñez* esateko *pedeando* esaten duena, nolanai ere ezta anka bikoa. Gaiñera zure izenak berak ere lau ankakoentzako obea dirudi ta...

—Zuek zerate Tontolapiko zar batzuek.

—Baditeke baditeke; zergatik eze tapiak pertzari esan zion Ipur-beltz.

P. M.

# Elizako Buru Leon andiari

¿Oraiñdik be kateak
Erroma orretan Leon guidaria
loturik dauke? ¿Katecheko (1) ateak
eztira irigi? ¡Au negargarria!
¿Geiago bere charrak
entzungo dabez onaren negarrak?
Babill Azkatasuna (2)
Lurraren alde batetik bestera...
¿ta ezta beiñ joan oraiñdik zugana
onan kaltezko kateok austera?
¿Zelan daiñ ez-bardiña
Azkatasunak eiñiko alegiña?
¡Ai! baiña ¿zer diñot nik,
Azkatasunak bazaukez katigu,
bazaukez berak lokarriz jantzirik?
Tamalez bai dakigu
asmo gazte ta zarrak
nondik datozan kateon iñdarrak.
Ori da Azkatasuna
Kategа (3)katez lotuten dabena,
ta Aita katigu ¡ai! ipiñten dauskuna.
¡Azkatasuna da beran izena!
izen ona benetan...
¡ai! balitz ona bere egikeretan!
Charrantzat da ondasuna,
onantzat beti dakaz ¡ai! negarrak;
deunga danantzat guztiz da biguna,
onan kaltean dira bere indarrak
Ori da Azkatasuna
ojuka or ta emen entzuten doguna.
Beioa guzurrezko
Azkatasuna lurbira (4) onetatik...
Eztot begirik, ez, bera ikusteko...
Nire begiak nai dabe bertatik (5)
Leon Andia ikusi
Katerik barik Erroman nagusi.

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA

1903-garrengo Martian

(1) Katecheа=cárcel.
(2) Azkatasuna=libertad.
(3) Kategа=libre, suelto.
(4) Lurbira=La Tierra!
(5) Bertatik=en seguida.

# GURE ESKUTITZAK

## Tolosatik

Emen nator berriz, nere irakurle maiteak, gure parrokiko apaiz batzuek zenbateraiñoko euskalmaiteak diran aguertzera. Nere bi adiskiden artean zer itzeguin dan gai ontan laister irakurriko dezute. Onela asten da bi oietako bat.

—Aurreko asteko IBAIZABAL-en gueian itz eman zidazun, Pello, erantzungo ziozula nik orduan eguin nizun galdera oni «eguia otezan Tolosako apaiz euskalmaiteak (beren esanean) iguesbidea artu zutela *Euskalzale*-kin zekarten bealerta edo *discusioan*», eta ona emen ni zuri entzuteko prest.

—Bai, nere laztana, beriala naiz zurekin. Nola guertatu oi dan, bide onez edo charrez, periodiku edozeiñetan norbaitzuk dabilkien ezpaita edo *disputa* isildu-arazlea, aguirian ipiñi nizun lengo astean; eta au bera eguiñak ote diran apaiz aiek, ez datoz berdin guzien iritziak. Nik eta Donostiko periodiku arren irakurleak dakiguna da, *Euskalzale*-k esan ziola gure parrokiko apaiz euskalmaiteen aldeko *Tolosar bat*-eri «etzedilla igueska ibilli Elizak len eta gaur ere etsaiak badituela esanaz; arrazoiez obetoago jantzita erantzun zezala *vicario* jauna inguratzen duten apaizak nola diran *vicarioa* bezelako euskalmaiteak.» Eta guziok dakigu *Tolosar bat*-ek gai ontan mutu-papera zeiñen ederki eguin duan, obetogo esateko, gutzat baiño *chino*-entzak obeak diran bi eskutitz luze nola eskribatu dituan.

—Isso, isso, ezta orrelako gauzik esan bear—zion bildurturik Pelloren entzuleak — Seminarioko ikasteak orrenbeste urtetan izan diranak eta guero guri milla modutako erakusaldiak emateko ipiñita daudenak, beren buruak leku obean jartzen ¿eztute jakingo?

—Ez beti, adiskidea. ¿Berdin dala deritzazu «gu euskalmaiteak guera» esatea, ta eguiaz ala izatea? Itz ederrak ez baiño eguintza onak nai nituzke nik.

—Nolanai dala, beti iduki ditut entzute aundiko euskalmaitetzat, oiek euskeraren jakindurian aurreratuak daudela, nik bezela, Tolosako jendeak jakin bear du; ¡bikaiñak ezpadira ba oietako batzuen euskerazko sermoiak! gu gosso gosso lotan gaudela ¡zenbat aldiz aiek liburu gaiñean dar dar otzak eta loak errenditzeko zorian egon otedira, euskera ikasi eta zabaltzeko beste asmorik gabe!

—Au eguiñarren ez nitzake batere arrituko; ¿nola izango litzake eguia bestela *vicario* jauna bezelako euskalmaiteak dirala?

—Euskalmaitea izan liteke, nere iritzian, lan ori artu gabe; baita ere euskeraz ondo mintzatu sermoi ta beste gauzetan loa galdu gabe, egunero arguitzen duan ezkeroz.

—Bai, euskalmaiteak izango lirake eta berak diran bezelakoak, ez beiñipein *vicario* jauna bezelakoak.

—Beraz, esan nai didazu eztirala saiatzen *vicario* jauna imitatzera.

—Orisse bera. Ezta gauza oso zarra gure parrokian guertatu dana; ill onen (1) lenbiziko egunetan luzeena ere ikusi guenduan garbiro euskalmaittea nor zan.

—¿Nolaz? Etzait gogoratzen.

—Beriala konturatuko zaitut. Ill onen lenengo igandean besperak eta Jesusen Biotz maitagarriari eguin zitzaizkan jaiera edo debozioak bukatu ondoren, igo zan pulpitora gure *Vicario* jauna errosario santua errezatzera, ta guziok uste guenduen bezela, eguin zuan *euskeraz*, jendearen poz eta atseguiñ aundiakiñ. Alai gueunden aurrera ere euskeraz errezatuko zalakoan, baiñan aguro galdu ziran gure ames gozoak. Eldu zanean urrengo eguna, jaia (Kandela eguna), zai gueunden nor etezan errosarioa esan bear zuana eta zertara ematen zuan ikusteko. Ontan, aguertu zan euskalmaitearen izen eder eta doatsuakin egun guchi onuntz bataiatu dituzten apaiz oietako bat eta... eta...

—¿Eta zer?

—¿Zer? *Por la señal... Misterios gozosos del... Padre nuestro que estás...* esanaz asiera eman ziola, da esatea, etzala konturatu *Vicario* jauna bezelako euskalmaitea zanik eta *erderaz* errezatu zuela errosario santua.

(1) Eskutitz au artu genduen Joan dan illean; ezin izan dogu arguitaratu gaur arte.

—¡Bapo ziok! Oraindaiño beste gauzik sinistu det apaiz oiengatik; emendik aurrera zipotz guchi sartuko didate. ¿Zertan dabill *Tolosar bat* jendea engañatu nairik, gure parrokiko apaizak "au dirala ta ori dirala esanaz? obe lukete erdera deserritzeko modua eguin al dan gauzetatik, eta euskalmaiteak dirala, ez periodikuan, ezpada beren lanetan aguertu.

—Arrazoi dezu, lagun laztana, ori litzake onena; baiñan bildur bear gaurko egunetan. Nik derizkiot batzuentzat zumar arbolari udareak eskatzea aiña izango dala. Agur eta erregutu ichuengatik.

IZENGORDEA

1903-ko Otsaillaren 17.ª

# ENRIKE-RI

1

Ez guera iñoren kontra;
Eguiaren alde;
Arrazoia ezagutzen
Degunak guerade;
Gauza bidezkoakin
Mintzatzen zerade,
Lengo asteko gueian
Chit eguiak daude.

2

Zure aurrean ere
¡Jaun amoriosua!
Emakumea beti
Izan temosua,



karri gabon esanaz abiatu ziran bakoitza bere echera.

—¡¡Ill da!!... ¡¡ill da!!—esan zioten Pachiri aitak eta amak echera eldu ziranean.

—Eta... ¿diru asko utzi du? Eta... ¿guretzat utzi ditu?—galdetu zuan Pachik beguiak ris bris eguiten zistela.

—¡Pachiko! — esan zion aitak asarraturik — oso biotz charra dezu eta lotsatzen nau zuri semearen izena eman bearrak.

Andik laster sartu ziran bakoitza bere guelan. Keissak aztu ziran... an jan zituzten goizean olloak eta zerriak... aztu zan goizean Bergarara joatea. Echealaiko danak, osabaren eriotza zeukaten gogoan; Pachik zerbait izango zuan esperantzarekin; gaiñerakoak negar eguiteko.

Biaramon egun sentian zijoan D. Jose Eche-alai aldera. Beste batzuetan eraman oi zuan bezela, etzeraman orduan bere eskopeta eta laguntzen zion bere illoba Angelek.

Eldu ziradenean Eche-alaira, arkitu zituen Juane eta gaiñerakoak, aurreko arratzean utzi zituen baiño zerbait sosegu gueiagorekin.

—Ia ba Juane—asi zan esaten indianoa—emen argui itz eguin bear degu. Nola difuntuak utzi ziñuen bere ondasunen jabe, konbeni da eta bear dituzu zeureganatu, besterik ezpada ere limosna eguiteko.

—Arrazoia du, Don Anjel, ala gustatzen zait guizonak.

—Orain esango dizutet zer guertatzen dan gauza



II

Arrazoia zuan Iñaziok; gaztaiñadia zear zijoan galtzadan azaldu ziran Apaiz jauna eta bere illoba Anjel, mando banan gaiñean, ondoren zituztela beste iru mando Indianoaren maletaz zamatuak.

Don José zan San Blaseko apaiz jauna. Zituan irurogueiren bat urte, osasun kolorea eta gueiegui ezarren zer arin mardua; bere izketan eta bere arpeguian ezagun zan biotzaren edertasuna; beti ichia gorrotoarentzat, poltsa zabalik zeukan bezela auzoen ezbearretarako; itz batean, zan esan oi dan bezela, ogui puska baiño obea, eta auzera guztiak maitatzen zuan aita bezela.

Indianoa zan ogueita bost urteko galai gazte bat.

Eche-alaiko guraso eta umeak jaiki ziran aiei ongui etorri ona ematera; bakarrik Pachi guelditu zan ocharren ondoan, sardiñak egon ziran ontzia artapuska batekin inguru guztian igosten; eta esanaz bere artean: ¿Zer zeucat nik zer ikusi Indianoarekiñ eta ez bere osabarekiñ?... Oiek emango dutenagatikan...

Ez altzituan Don Josek Echealaitarrak ikusi, guelditu zuan mandoa; beste ainbeste eguin zuan Indianoak.

—¡Kaisso Juane! ¡Ola Franziska!—esan zuten osaba illobak.

—Arratzalde on duela Don Jose lagunakiñ—erantzun zuten danak.

—¿Posible oteda—esan zuan Praiskak—zaldun au dala...

Alchatzeko esan-arren
Naguia pausua,
Obedientzi guchi
Naiz beti errezua.

3

Beste persona bakar
Batzuek badira,
Aitorleku inguruan
Jira eta bira,
Aitortu bear ez ta
Iñori beguira,
¿Zertan eztira joaten
Elizan erdira?

4

Gauza aldrebes asko
Pasatzen da Elizan;
Zu mintzatzen zeraden
Jai ura bera zan,
Ez nuen ezagutu
Dama au nongoa zan,
Orain esango dizut
Zer moduz sartu zan.

5

Bulto aundi ssamarra
Obserbatu nuan
Pasatu zitzaidala
Nere inguruan,
Merkatu plazan bezin
Lasaia zijuan,
Gobada ssestera bat
Zubela buruan.

6

Ezertzat etzedukan
Ala juatia,
Laja zuan ssestera
Eta burutia;
Sillan jarri zitzaigun
Guziz dotoria,
Altutikan ekusi
Zuan aldaria.

7

Oiek orla guertatu
Ziraden Elizan;
Ala eztan gauzarik
Eztet ezer esan,
Sestua aldamenian
Sillan guelditu zan,
Eztakit nola irten zan,
Ni echeratu nitzan

8

Bein aserreturikan,
Gure parrokuak
An atera zituan
Sesto eta oilluak;
Ori bera eguin zuen
Gure Jaungoikuak,
Elizak eztirade
Merkatu lekuak.

9

Kontzeju au ez, arren,
Iñork gaizki artu,
Sestera eta oilluak
Ez Elizan sartu;
Maiz ssamar dabiltzanak
Ere beguiratu
Al bada eztezaten
Iñor asarretu.

10

Beti izan dezagun
Jaunaren bildurra,
Eta errespetatu
Bere echeko lurra;
Bestela ezta faltako
Guretzat egurra,
Enrikek jarrikoigu
Denai igaburra (1)

A. A.

# IZKIRIMIRIAK

Astegun baten Meza-bitartean, Meza erazoten egoan mutilchuari gurari bat aguertu jakon, nai-ta-naiezkoa ta leku eskutuetan izan ezik eguin ezin leikeana. Abadea altaran isteko egoala, beste mutilchu bat ebillen, gaztechuagoa, batera ta bestera, altarak ikusten.

Meza-mutillak beste oni ziñuka beragana deituta, beren lekuan belauniko guelditu eraguin eutsan. Urten eban mutillak Elizatik, *Aitearen* eguiteko bere asti barik.

Abadeak arik lasterchura, *Dominus vobiscum* esan eban. Mutilchua abadeari arpeguira beguira issillik egoan. *Dominus vobiscum* abadeak bigarrenean, da mutilla issillik. Irugarrenean mutillari beguira abadeak *Dominus vobiscum* esan ebanean, mutillak erantzun eban: Jauna, *Dominus vobiscum* kaka eguitera joan da.

---

Aur batek negarren negarraz bere aiñagandik eskuratu zuan *ron* izena duen edari puska bat. Azi zan guero beatz bi *ronetan* sartu eta eskuetan zedukan andrakillari sudurra igortzi eguiten.

—Miguelcho ¿zertan ari aiz? Ekusiko dek guero. Ama laister etorriko dek eta gonak alcha ta *pli pla* emango dizkik ederrak.

Aurrak gueruago ta gogo aundiagoarekin igortzen ziarduan. Eldu zan onetan bere ama, ta aiñari errietan eguinta guero, esan zion aurrari:

—Miguelcho ¿zergatikan ari zera ortan?

—Ama, aitak goli goli onekin sudula golitzen omendu, ta Juanchori sudula golitu nai diot.

Echeko andreari *ron* gabe gorritu zaion arpeguia ura entzunikan. Aiñak orduan esan zion belarrira:

Echeko andrea, sarri aditu det nik au: Aurraren zentzuna, echean entzuna.

---

Urte biko ume bat eiegoan Orduñan, berbarik eguiten asi bakoa. Sendalari edo mediku bati deitu eutzen gurasoak zer zan edo zer etzan jakiteko.

Sendalariak, miiña azpi ta ganetik ondo ikusita guero, esan eutsen;

—¿Orduñakoa bertakoa da berau?

Baietz erantzun eutsenean, esan eban:

—Orretara ezkero ez larritu ezer bere. Orduñakoa izan, eta ganera andrazkoa, eztago bildurrik, ukondotik bere berbeak urtengo deutso.

(1) Multa.

LA EDITORIAL VIZCAINA dorlohon moldaguintzan
Gran Via, 26 eta Ledesma, 15.



—Anjel—eranzun zion irribarre eguiñaz Indianoak—ni naiz mutill gaizto ura oraiñ amar urte asarratu eraguiten nizuna beti arrika eche aurreko inchaurrari nere osaban ondorean Eche-alaira etorten nintzanean.

—¡¡Bedeinkatua izan dedilla gure Jaungoikoa!! ¿Nork esan lezakean berori zan bezin...

—Zer berori eta zer perrechiku ustel... orisse bear gueuduke, sapaburua aiña ez nintzanean ezagutu ninduenak berori eta jauna esatea. ¡Impernuko Chomin! Mikaelak ere eztu ezer galdu. ¡Au bai dagoala neskacha!

Mikaelak jachi zituan beguiak lepoko pañoloan punta atzamartuaz, eta aren larrosa koloreko masalla ederrak biurtu ziran krabeliña kolorekoak.

—¡¡Zenbat azi dan Iñazio!! ¿Eta Pachi nundikan dabill?

—Keissa ondoan guelditu da.

—Arek, eztago zer esanik, lengo lepotikan eukiko du orain ere burua. ¡Amaika bidar ernegatu eraguin zidan chikitan!

—Eta beori ¿nola ibilli da mundu oietan?

—¡Zorioneko beori! Ez nuke nai berriz aditzerik, Juane.

—Baiña ezin utzi esan gabe.

—¡Ba! bearko utzi nerekin adiskide nai badezu..... Ni ibilli naiz ondo eta gaizki, guztira; baiña Jaungoikoari eskerrak osasuna badet eta asko asko ezarren, ondasun pizka baten jabe ere eguin naiz; nere ustez naikoa, ogui puska bat janaz baztar onetan pozik bizi izateko. Asko nai diot eskiña oni, eta gueiago



nere osabari, zeiñi zor diotan naizen guztia. Nere artean esan nuan... nuan nere ollo lurrera, onezkero osaba zartua egongo da, eta nai det bere ondoan bizi bera zaitutzeko eta biurtu iñola albadet, neri eguin didan mesedeak..... eta esan ta eguin, emen nun irichi naizen zerutik eroritako choko onetara, baiña... orain gogoratzen naizenaz,zuek... inguru guztiko aberatsenak izan bear dezute.....

—Jaungoikoari eskerrak etzaigu falta artoa eta esnea.

—¿Zer esaten dezu Juane? ¿Eta anaian ondasunak?

—¿Zor ondasun Don Angel?

—¡Berriz ere Don eta kalabaza errea! Jaunak zeruan euki dedilla, zure anaianak.....

—¡¡Ai gure Jaungoikoa!! ¡¡Orla ill zan!!—esan zuten Juanek eta Praiskak eskuak gurutzetuaz.

—Seguru eziñ esan nezake—esan zuan indianoak zerbait damuturik—baiña... oso gaizki zegoan.

—¡¡Ai!! Ez beza ukatu... illa izango da.

—Bai ba zorigaiztoan... urte bi izango dira ura ill zala—esan zuan indianoak—baiña ¿nola izan lezake zuek ez jakitea? ¿Eta arek zuentzat utzi zituan izugarrizko ondasunak?

—Gorde diteztela orain dauzkatenak—erantzun zuten Juanek eta Praiskak.

—¡Juane!... ¡Praiska!...—esan zien apaizak eskuakin sorbaldan joaz—negarra ezta aiñ mikatza ondasunekin danean. Bigar itz eguingo degu gauza orren gaiñean, zergatik gaur etzaudete orretarako.

Gaba irichi zan izarrak aguertuaz. Indianoa eta bere osaba alde batera eta Eche-alaikoak bestera, al-